

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Herriko jaietako ekintzetarako 2026ko dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 899231.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/899231>).

Jakitera ematen da 2026ko apirilaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu egin dela herriko jaietako ekintzetarako 2026ko dirulaguntzen deialdia. Beraz, jendaurrean jarri da, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Lehenengoa. — Xedea

2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte herriko jaietarako antolatzen diren ekitaldiak diruz laguntzea.

Bigarrena. — Eskatzaileak

Herriko jaietarako ekintzaren bat antolatzen duen pertsona fisikoa zein juridikoa

Hirugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa mota

- 20.000 euro.
- Dirulaguntza ebatzi ondoren %75a ordainduko da eta justifikazioa egiten denean gainerako %25a.

Laugarrena. — Emango den zenbateko handiena

4.000 euro.

Bosgarrena. — Eskaria egiteko epea

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2026ko ekainaren 19ra arte

Seigarrena. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko:

- Dirulaguntza eskaera: IN-E 269/02-23 edo IN-G 269/02-23.
- Aurrekontua: IN-E 270/02-22 edo IN-G 270/02-22.

Justifikazioa egiteko:

- Dirulaguntza justifikatzea: IN-E 271/04-25 edo IN-G 271/04-25.
- Diru sarrerak eta gastuak: IN-E 272/01-20 edo IN-G 272/01-20.

Zazpigarrena. — Kontzesioaren modalitatea

Norgehiagoka.

Zortzigarrena. — Ebazteko epea

Eskaera egiteko epea amaitzen denetik, 60 egun.

Bederatzigarrena. — Helburuak, balorazio irizpideak eta prozedura

2025eko maiatzaren 9an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzetan agertzen dira.



Hamargarrena. — *Tramitaziorako instruktorea, balorazio batzordea eta erabakia*

- Kultura teknikaria.
- Dirulaguntzen balorazio batzordea.
- Tokiko Gobernu Batzarra.

Hamaikagarrena. — *Justifikatzeko epea*

2026ko urriaren 19tik 30era.

Bermeon, 2026ko apirilaren 16an. — Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly